

EUSKARA BILBON**I. Aurkezpena**

Argitaratu berri du Bilboko Euskara Zerbitzuak, lan honi ezarri diogun izenburua duen liburuska interesgarri bat. Orain artean, susmorik ugari bagenu ere ezer gutxi genekien ziurtasunez Euskal Herriko hiri handi honetan euskarak zuen egoerari buruz.

Lan horrek, aipatu berri dugun bezala, Euskal Herriko hiri handieneko hizkuntz egoerari buruzko datuak eskaintzerakoan, hainbatetan euskarak gizarte moderno industrializatu honetan izan duen bilakaera eta gaur egungo egoera isladatzen dizkigu.

Zer esanik ez, Bilbo eta beraren inguruak izan ditugu azken bi mendoetan biztanlego ugalketarik handiena jasan duten Euskal Herriko gunerik garrantzitsuenak eta, etorliar gehientsuak Euskal Herrikan kanpoko Lurraldeetatik etorriak zirenez, erdara gure artean sartu eta hedatzeko aterik zabalena.

Era berean, une honetan beste herrialdeetako hiriburuak handitzerakoan nolabaiteko oreka gertatu bada ere, Bilbo izan dugu Euskal Herriko ekonomiaren bultzailea eta industrializazio zein aurrerakuntza gunerik nagusiena.